

Marisol Antolín, Vito Gil-Delgado, Mikel Olaizola, Virginia Navarro, Ismael Iglesias, Ane Rodríguez, Eukene Fernández, Anartz Ormazá, Josu Elortegi.

KOORDINAZIOA ETA EDIZIOA / COORDINACIÓN Y EDICIÓN
TIPI, ERALDAKETARAKO DISEINUA. ANE ABARRATEGI ZAITEGI, MADDI TEXEIRO
TARAZAGA, ITSASO LARRAMENDI ELEXGARAY ETA MANUELA ABASOLO KRUG
WWW.WEARETIPI.CO

DISEINUA ETA MAKETAZIOA / MAQUETACIÓN Y DISEÑO
MIKEL SERNA BERMEJO

ITZULPENAK / TRADUCCIONES
MADDI EGIA, MADDI TEXEIRO

INPRESIOA / IMPRESIÓN
ESTUDIOS DURERO, SL

LEHENENGO EDIZIOA, 2017 / PRIMERA EDICIÓN, 2017
LEGE GORDAILUA: BI-1795-2017 / DEPOSITO LEGAL: BI-1795-2017
CREATIVE COMMONSEKO AITORTU - EZKOMERTZIALA - BERDINPARTEKATU 2.5 ESPAINIA (CC BY-NC-SA 2.5 ES) LIZENTZIAPEAN ARGITARATZEN DA / SE PUBLICA BAJO LA LICENCIA CREATIVE COMMONS RECONOCER - NOCOMERCIAL - COMPARTIRIGUAL (CC BY-NC-SA 2.5 ES)

TIPI ERALDAKETARAKO DISEINUA

Diseinua soluzioak sortzeko tresna bezala ulertzen dugu, pertsonen bizimodua eta beraien ahalmen eta gaitasunak hobetzeko erreminta bezala. Lurralde, erakunde eta pertsonekin egiten dugu lan. Bitartekaritza, elkar-sorkuntza eta espazio zein zerbitzuen diseinuan dihardugu.

ELKARTOKI

TIPIk sustatutako proiektua da, Eusko Jaurlaritzaren Sormen Lantegiak programaren laguntzarekin. 2014. urtetik proiektuan parte hartu duten eskolak honako hauek izan dira: Zabala eskola (Getxo), Karmelo Ikastola (Bilbo), San Nikolas Ikastola (Getxo), Karmelo Etxegarai Ikastola (Azpeitia), Lekeitioko Eskola Publikoa (Lekeitio), Geroa Ikastola (Getxo), Abendaño Ikastola (Gasteiz) eta Kueto Eskola (Sestao). www.elkartoki.com

TIPI DISEÑO PARA LA TRANSFORMACIÓN

Usamos el diseño como herramienta para generar soluciones que mejoren las condiciones de vida de las personas y potencien sus capacidades y habilidades. Trabajamos con personas, comunidades y territorios. Nos dedicamos a la mediación, co-creación, y el diseño de servicios y espacios.

ELKARTOKI

Proyecto impulsado por TIPI con la Ayuda del programa Fábricas de Creación del Gobierno Vasco. Desde el año 2014 las escuelas que han participado en el programa han sido: Escuela Zabala (Getxo), Ikastola Karmelo (Bilbao), Ikastola San Nicolás (Getxo), Ikastola Karmelo Etxegarai (Azpeitia), Escuela Pública de Lekeitio (Lekeitio), Geroa Ikastola (Getxo), Abendaño Ikastola (Gasteiz) y Escuela Kueto (Sestao). www.elkartoki.com

TIPI

ELKARTOKI



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ELKARTOKI

**ELKARTOKIren edizio ezberdinetan parte hartu duten zenbait umeren testigantzen bilduma da honakoa:*

“Pertsonak leku bati eragin handia egiten diogula ikusi dut.”

“Hasieran jolasa bakarrik izango zela uste genuen: hau eta bestea eraikiko dugu, ideia hau daukat... Uste genuen benetan ez genuela ezer egingo eta gero bai, egin genuen eta asko poztu nintzen.”

“Batzutan ez dira gauzak erosi behar, zuk egin ahal dituzu.”

“Pazientziaz dena egin ahal dela ikasi dut.”

“Hemen beti gaude futbolean jolasten eta egia esan, futbolaz deskonektatzeko toki bat izatea oso ondo dago.”

“Patioa pixka bat aldatu da
baina ia ezer ere ez.”

“Nire pentsamendua da: kolore
gehiago behar duela, kolunpio
gehiago behar direla. Mahaiak
eta aulkiak kolore gehiago
behar dituzte.”

“Txikiagoek orain esaten dute:
margoak ekarriko ditut eta
patioa margoztuko dut.”

“Lehen dena oso txarto zegoen
eta Ismael etorri zenean dena
aldatu zen. Orain patioa oso
ondo dago.”

“Gauzak egin
baino lehen,
pentsatu behar
dira.”

“Gauza
txarretatik
gauza onak
atera ditugu.”

“Hasieran gauza oso handiak eta eraikitzekeo gatzak asmatu eta proposatu genituen. Baina gero, gauza errazekin ere patioa asko hobetu daitekeela ikusi dugu.”

ELKARTOKI eskoletako jolastokiak modu parte-hartzailean eraldatzea helburu duen ekimena da, horretarako ikasleak prozesuaren erdigunean jartzen dituen. Behetik goranzko sormen prozesu kolektiboan oinarritzen da programa eta zera proposatzen du: jolastokia aztertzea, horri buruzko hausnarketa egin eta esku-hartze posibleak irudikatzea, azkenik, jolastokietan ematen diren erabilera zein dinamikak aldatuko dituen eraldaketa fisikoa egiteko.

Puntu hau argitu ondoren, esan behar dugu ELKARTOKI askoz ere urrunago doala. Ekimena garatzen ibili garen urte hauetan zehar, lortutako ziurtasun bakoitzeko dozenaka zalantza sortu zaizkigu. Ziurtasunei dagokienez, badakigu izaera esperimentala dela ELKARTOKIren ezaugarri nagusia, eta aldi berean, ikastetxe bakoitzean garatutako proiektu bakoitza abian jartzeko orduan, bi premisa hartu behar ditugula kontuan: alde batetik, genero berdintasuna, partaidetza eta esperimentazio artistikoa babestu eta lantzea

(balore horiek hartzen baititu oinarritzat proiektuak); eta bestetik, esparru malgua eskaintzea proiektua ikastetxe bakoitzaren aukera eta premietara ahalik eta gehien egokitzeko, era horretan, proiektua ikastetxearen nortasunaren atal bihurtu dadin.

Zalantzei dagokienez, arestian esan dugun moduan, etengabe sortzen zaizkigu, baina horiek arazotzat jo ordez, proiektuaren izaeraren berezko elementutzat hartu ditugu eta ibilbide berriei ekiteko tresna gisa erabili ditugu. Ibilbide horietako bat izan da ELKARTOKILAB ikerketa eta hausnarketarako laborategia sortzea. Eskola bakoitzean ELKARTOKI ezartzeko alderdi praktiko hutsaz haraindi, plano orokor eta teorikoagoa jorratu nahi du ELKARTOKILAB ekimenak. Plano horretan biltzen ditugu hezkuntza esparruko bitartekaritza modu berrien inguruan sortzen zaizkigun ideia, aldaketa, premia edo kezka: zer gertatzen den artista txertatzean, zein hartu-eman dituen eskolarekin, edo zein den familien papera.



Eskoletan ematen den espazio eraldaketaren eta esperientzia pedagogikoaren ginetik, proiektu honen utopia bitartekaritza eredu berri bat garatzeko oinarriak ezartzea da, non eskola komunitateak (ikasleak prozesuaren muinean daudelarik), artistek, eta bitartekari taldeak modu bateratuan sortu eta jarduten duten, betiere horien guztien nahi eta ahalbide errealak kontuan hartuta. Gure ustez, eredu honek ezagutza eta gaitasunen transmisioari bide eman behar dio proiektua eskolan errotu eta bertako elementu bihur dadin. Azken finean, espazioaren transformazioa aitzakia besterik ez da jolastokiko dinamikak aztertu eta adatzeko, analisi eta portaera aldaketa horiek beste edozein gizarteratze esparrutara ere zabaldu baitaitezke.

Praxiaren (ELKARTOKI) eta hausnarketaren (ELKARTOKILAB) arteko erdibidean dago argitalpen hau. Alde batetik, eraldaketak egiteko oinarritzat erabiltzen dugun egitura dauka: JABETU, ASMATU eta ERALDATU.

Hau da, espazioa berriro diseinatu eta eraldatzearekin zerikusia duen atala eta orain arte proiektuaren ardatza izan dena. Baina bestetik, esperientzia edo eredu experimentalagoak ere islatu nahi izan ditugu, bitartekaritza artistikoari eta berrikuntza pedagogikoari lotutakoak, izaera bereizgarria duten eta ikertzen ari garen gaiak baitira hauek.

Bi ideia horiek garatuz eta uztartuz prestatu dugu argitalpen hau, non, aurreko edizioetan parte hartu duten kolaboratzaileen ekarpenak, eta modu batean ala bestean gure gai berak jorratzen dituzten profesionalen ekarpenak ageri diren, beren ikuspegia eta esperientzia azaltzeko. Profesional horien planteamenduekin adostasun maila handiagoa ala txikiagoa eduki arren, dudarik ez dago bestelako erronka eta galderen inguruko hausnarketak egitera bultzatzen gaituztela.


A	19	21 – 25	ARTIKULUA. ESKOLETAKO JOLASTOKIAK ESPAZIO SEGURU BIHURTU. MARISOL ANTOLÍN BERRITZEGUNE NAGUSIA – ANIZTASUNA ETA GENE- ROA
	J		
	A		
U	B	26 – 31	PRÁCTICA. MALAS HIERBAS. CLASIFICACIÓN BOTÁNICA DE HIERBAJOS DEL PATIO. VITO GIL-DELGADO – UNA DE LAS RESPONSABLES DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL CA2M
	E		
	T		
R	U	32 – 34	ELKARRIZKETA. MIKEL OLAIZOLA – AZPEITIKO KARMELO ETXEGARAI IKASTOLAKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA
	34		
K			
	35	37 – 41	ARTÍCULO. IMAGINAR EL PATIO. VIRGINIA NAVARRO MARTÍNEZ – ARQUITECTA COORDINADORA DE LUDANTIA
	A		
I	S		
	M	42 – 49	ENTREVISTA. ISMAEL IGLESIAS – ARTISTA POR ANE RODRÍGUEZ ZAITEGI – ARTISTA Y EDUCADORA
	A		
B	T		
	U	50 – 54	ARTÍCULO. ¿QUÉ COSAS HAY QUE TENER EN CUENTA AL CONSTRUIR UN ÁMBITO APROPIADO PARA LA EDUCACIÓN MÁS ALLÁ DEL ESPACIO? EUKENE FERNÁNDEZ SOLASGUNE – COMUNIDAD Y APRENDIZAJE
	54		
I			
D	55	57 – 63	ARTIKULUA. EGITEAREN GARRANTZIA. ERALDAKETA- BERE HORRETAN ERE, BADA ZER. ANARTZ ORMAZA – ARKITEKTOA TEO ARKITEKTURA – TXIKIARK KOLEKTIBOA
	E		
	R		
E	A		
	L	64 – 66	ELKARRIZKETA. JOSU ELORTEGI – SAN NIKOLAS IKASTOLAKO ZUZENDARIA
	D		
A	A		
	T		TRADUCCIONES / ITZULPENAK
	U	67 – 80	
	80		



Patioa behatu, aztertu eta bereganatu.

Observar, analizar y apropiarse del patio.

Eskoletako jolastokiak espazio seguru bihurtu



MARISOL ANTOLÍN
Berritzegune Nagusia
Aniztasuna eta Generoa

Duela hainbat hamarkada, Euskadiko eskoletan buru-belarri ari dira lanean baterako hezkuntza zein berdintasuna sustatzeko, eta neska-mutilen eskolak baterako hezkuntzako eskola bihurtzeko. Egia da berdintasunaren esparruan aurrerapen nabarmenak egon direla, bai gizartean oro har, bai eskoletan ere; hala ere, ikerketek erakusten dute nesken eta mutilen arteko harremanak, bai haurtzarotan, bai nerabezaroan ere, asimetrikoak direla oraindik. Halaber, estatistiken arabera, tratu txarrek ere gora egin dute, eta abusuan oinarritutako egoera ugari gertatzen dira eguneroko bizitzan.

Hainbat azterlanek, eskola-espazioak eta horien erabilera aztertu ondoren, ondorioztatu dute generoaren aldagaia erabakigarria dela.

Hala, besteak beste, aipatutako azterlanek adierazi dute jolastokietan oraindik sexista dela espazioaren banaketa eta jokoen hierarkia; halaber, sexistak dira nesken edo mutilen jarrerak, eta jolastokiko espazioa antolatzen ez denez, mutilak egoten dira espazio zentralan, eta neskek, berriz, baztertuta geratzen dira. Azterlan horiek azpimarratzen duten beste gai bat honako hau da: eskoletan desoreka handia dagoela futbolerako ekipamenduetarako eta espazio naturaletarako, lorategietarako eta jolaserako bestelako espazioetarako erabiltzen diren baliabide eta bitartekoen artean.

Baina espazioaren analisia askoz ere sakonagoa izan behar da: mutilen eta nesken arteko ezberdintasun ezaz gain, eskoletan ematen den indarkeriari buruzko hausnarketa ere egin behar dugu; halaber, agerian jarri behar ditugu hainbat azterlan eta ikerketa, horien arabera, eskoletan gertatzen diren gatazken % 90aren oinarria genero-indarkeria eta neska zein mutilen sozializazio afektibo-sexuala baitira.

Estatistiken arabera, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko jolas-orduan eta DBHko ikasgeletan sortzen da tratu txar jokabide-portzentaje handiena. Horrez gain, sexu orientazioarekin eta generoarekin zerikusia duten tratu txarrei buruzko datuak jasotzen dira estatistika horietan. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko ikasleek adierazi dute beren ikaskide batzuen bazterkeria kasuen lekuko izan direla, bai sexu-orientazioagatik, bai neska

edo mutil izateagatik. Azterlanaren emaitzetan aipagarria da desfase handia dagoela eraso homofoboak ikusi eta horrelako erasoak jaso dituztela aitortzen duten pertsonen artean; eta datu horrek, hain zuzen ere, zerikusia du eskoletako jolastokietan gertatzen diren tratu txarrekin.

Ezinbestekoa da ulertzea, berdintasuna lortu nahi badugu, lehentasuna eman behar zaiola ikasleen arteko harremanak lantzeari.

Gure eskoletako eguneroko bizitzan, ikasleen sozializazioan eragina duten hartu-emanak gertatzen dira: elkarriketetan aurreiritziak adierazten dira; jolastokian edo korridorean gatazkak sortzen dira; genero-estereotipoak sustatzen dituzten komentarioak egiten dira, hain zuzen ere jarrera batzuei ala besteei balioa ematen diotenak... Horrelako egoera gehienak beste pertsona batzuen aurrean gertatzen dira. Horrelako egoerei ematen diegun erantzun motak, bai helduon aldetik, bai ikaskideen aldetik ere, indarkeriarik gabeko eskola bat sortzen lagunduko digu, edo aitzitik, indarkeria betikotu ala areagotu dezakete. Jaiotzen garen unetik gaude murgilduta sozializazio izeneko prozesuan. Horregatik ezin gara zain egon neska zein mutilak nerabe izan arte indarkeria onartezina dela erakusteko.

Egia da ez duela batere laguntzen genero-indarkeriaren egungo ikuspegiak: izan ere, horrelako indarkeriak bikote-harremanekin edo harreman iraunkorrekin bakarrik zerikusia duela uste da, eta ondorioz, zaila izaten da neska nerabe

askok jasaten duten genero-indarkeria antzematea. Hala, gure sozializatzeko moduaren eta egungo nesken eta mutilen sozializatzeko moduaren ondorioz, indarkeria-jokabide asko naturalizatu dira neska eta mutilen arteko harremanetan. Naturalizazio horren ondorioz, eskoletan oztopoak sortzen joan dira; horregatik zailagoa da indarkeria-adierazpenak identifikatzea, eta beraz, baita dagokion prebentzio-lanak egitea ere.

Horrez gain, oztopo garrantzitsuak dira horrelako jarrerak: jokabide asko «haurren kontua», «gauza berragarriak» edo «betidanik gertatu diren gauzak» direla esatea... Indarkeria-jokabide horiek zurrizteaz gain, horrelako jokabideak dituzten haur eta gazteak erakargarri bihurtzen ditugu, beren jarrerari balore positiboak emanez: «Crack hutsa da». Komunikabideek ere lengoia erakargarri hori erabiltzen dute, indarkeriari balore positiboak emanez «bihurri, seduktore, zitala, mendekatia eta anbizio handikoa, a zer mutila».

Naturalizatzek esan nahi du jokabide jakin batzuen aurrean dagoeneko ez garela harritzen, beti gertatu den zerbait bezala ikusten ditugula, garrantzirik ez duten gertaera gisa, haurren kontu gisa. Hala ere, indarkeria-jokabide, irain edo txantxa jakin batzuk arinki hartzeak; biktimen sufrimendua gutxiesteak eta ikaskideen artean indarkeriaren eta tratu txarren isiltasun-kodea ez apurtzeko nabarmen oztopatzen du genero-indarkeria kasu bat edo kasu posible bat saihestu edo antzema-

teko beharrezkoak diren adierazleak antzemateko lana.

Beste alde batera begiratu ez esku hartzeak eta ikusle huts izateak gatazka zabaltzen laguntzen du, baita gatazkari garrantzia ematen ere. Beraz, oker handia da. Norbait indarkeria-egoera baten lekuko bada eta ez badu ezer egiten, badirudi jokabide hori onartzen duela adierazten diela inguruko. Batzuetan pentsatzen dugu ez dela gure bete-beharra esku hartzea, edo ez dela beharrezkoa esku hartzea, eta hori ere oker handia da. Erantzukizunaren eragina gutxitzen dugu, beste norbaitek hartuko baitu erabaki hori. Horretarako justifikazioak era askotakoak izan daitezke: ez nuke jakingo nola esku hartu; ez didate kasurik egingo; ziur nago badagoela hori nik baino hobeto egiten dakienik; inork ez badu ezer esaten ez da horren larria izango...

Gertatutakoari garrantzia kendu edo murrizte aldera ematen ditugun erantzun horiei guztiei buruzko hausnarketa egin behar dugu. Norbaitek esan lezake egoera ez dela horrenbestekoa; jarrera ez da egokia, baina mutilak edo neskak (biktimak) gauzak bere onetik ateratzen ditu; haurren kontuak dira; adin-kontua da, pasako zaie txarkeria... Horiek eta beste erantzun batzuek ez dute kontuan hartzen edozein abusu edo jokabide desagoki onartzean, horiek eragina dutela mutil eta nesken sozializazioan. Indarkeria normalizatzen duen sozializazio mota indartzen du. Inork ez badu beraiek azaldu-takoa sinestu edo kontuan hartzen, biktimak beraiek gertatutakoa mi-

nimizatzera iristen dira.

Hori guztia dela eta, prebentzioaren esparrua landu behar da eskoletan. Prebentzioari buruz ari garenean erroetan jarduteari buruz ari gara, hau da, arazoa sortzen hasten denean esku hartzeari buruz. Haurtzarotik hasita eta edozein indarkeria-motaren aurrean. Arazo hori erro-errotik jorratu behar dugu, dakigun moduan, historian zehar beti egon baita gizartean. Genero-identitateen eta giza harremanen inguruko sozializazio-prozesuak aldatzeko erronkari egin behar diogu aurre, prozesu horiek indarkeriatik urrunduz. Nesken, mutilen eta gazteen sozializazioan eragina eduki nahi badugu, indarkeriatik urruntzen diren mezuak zein dinamikak egunero egon behar dira ikusgai.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, ezinbestekoa da berariazko lana egitea adin-tarte guztietan genero-indarkeriaren adierazpenak antzemateko, indarkeria hori norik jasaten duen, norik erabiltzen duen eta horri nola erantzun ikusteko. Genero-indarkeriari aurre egiteko gomendio orokorrak eskoletan kontuan hartzen badira, lagungarria izango da indarkeria ikusgarri egin, desnaturalizatu eta horri aurrea hartzeko prozesuan; baita ikasleentzat indarkeriarik gabeko eskola seguruak sortzeko orduan ere.

Nazioarteko ikerlarien ustez horretarako gakoetako bat da haurtzarotik hasita jorratzea indarkeriaren prebentzioa, eskoletan bizikidetzaren espazioak sustatuz, bertan, txiki-txikitatik ikaskuntzari eta indar-

keriarik gabeko harremani lehen-tasuna emanez:

— «0 indarkeria 0 urtetik aurrera». Bizitzako lehenengo urteetatik hasita indarkeriarekiko zero tolerantzian hezteak eta ildo horretako estrategiak aplikatzeak aukera ematen du eskolak espazio seguru bihurtzeko, non erasoekiko gaitzespena eta bizikidetzarako giro egokia diren nagusi.

— Beharrezkoa da haurrek helduei laguntza eskatzen dietenean, esandakoa entzun eta kontuan hartzea; hau da, eraso-mota ezberdinak ez minimizatzea; horrelako kasuetan bitartekaritzarik ez egitea, ezinezkoa baita eraso edo irain bat jaso duen norbaiten eta beste pertsona baten artean bitartekaritza egitea, maila bereko pertsonen arteko harremanean baino gehiago, botere-harremanean baitago oinarrituta hartu-eman hori. Arazo hori hezkuntza-komunitate osoaren ardua da, eta horregatik, ikerketen arabera, erkidego-eredua da eskoletan erabiltzen den indarkeriari aurre egiteko modu egokiena, ez bitartekaritza.

— Isiltasunaren legea hautsi behar da. Norbait salatzearen eta informazioa ematearen arteko ezberdintasuna ulertu behar da. Biktimak babestea bada helburua, egoeraren berri ematen duten pertsona ausartak daude soilik.

— Komunitate zientifikoak azpimarratzen du berdinen taldea oso garrantzitsua dela normalizatu daitezkeen egoerei aurrea hartzeko, eta hala, etorkizunean indarkeria kasuak antzeman eta konpontzeko

orduan, arazorik ez egon ez dadin. Horretarako, ezinbestekoa da berdinen taldean babes-sareak sustatzea, edozein jazarpen edo erasoren aurrean, zero tolerantzia giroa sortzeko.

— Benetako adiskidetasun-sentimendua landu behar da, ikasleak indarkeriatik babesteko; hau da, ongi tratatzen gaituzten ikaskideen artean adiskideak aukeratzeko, eta hala, ez ditugu gaizki tratatzen gaituzten pertsonak aukeratuko lagun gisa.

— Erasotzen duten neska eta mutilak lagunik ez dutela pentsatzeari utzi behar diogu; errealitatean, pertsona-multzo batez inguratuta egon ohi dira, bai dibertigarria iruditzen zaielako, bai horrela erasoak ekiditen dutelako; hala, beraiek ere abusuan parte hartzen dute.

— Hezkuntza-komunitate osoan adostasuna lortzea, ikasleak «ez beti da ez» lemapean hezteko.

Indarkeriarik gabeko testuinguruak sortzeak esan nahi du eskolan inork ezingo duela inor jo, edo norbaitek jo egiten badu, gainerako ikaskideek jokabide hori ukatu edo gaitzetsi egingo dutela. Ildo horretan esku hartzea; hau da, indarkeria-zantzu txikiena antzeman bezain laster jardutea da planteamendu nagusietako bat, hain zuzen ere komunitate zientifikoak eta nazioarteko gomendio politikoek azpimarratutakoa.

Indarkeriarik gabeko jolastoki seguruak, eta beraz, halako eskolak edukitzeak esan nahi du ikasleek aukera gehiago izango dutela

hobeto ikasteko; solidaritatea zer den ikasteko, hain zuzen ere solidario izanez; eta oro har aukera gehiago izango dutela zoriontsu izateko. Halaber, esan nahi du aukera paregabea dela etorkizuneko herritar justu eta zoriontsuagoak hezteko, eta batez ere, pertsona horiek askatasuna izango dutela edozein indarkeriatik libre dauden harremanak aukeratzeko, genero-indarkeriatik libre daudenak barne.

Erreferentzia bibliografikoak:

- ISEI- IVEIk bildutako datuak.
- *Universitat de Barcelona* unibertsitateko *CREA Community of Research on Excellence for All (Guztientzako Nazioarteko Erkidegoa)* erakundearen barne egindako ikerketetan oinarritutako artikulak.
- Yale Gida.

Lagina / Muestra		Izen arrunta / Nombre común	Izen zientifikoa / Nombre científico
		Ilustrazioa / Ilustración	

MALAS HIERBAS


Zure inguruko edozein belar txar hartu eta goiko fitxa bete. Lagin bat hartu eta gorde. Izen arrunta asmatu baita "latinez" izen zientifiko bat ere. Bukatzeko, belar hori irudikatu.

Coge cualquier hierbajo de tu entorno y rellena la ficha. Toma una muestra y guárdala. Asígnale un nombre común inventado y un nombre científico en "latín". Por último, ilustra la hierba.

Clasificación botánica

30

Durante el curso 2016-2017 el colectivo Campo Adentro hizo una residencia artística en el Colegio Público Manuel Núñez Arenas de Vallecas. El proyecto consistió en trabajar con las malas hierbas del patio. Todas esas plantas que nacen y crecen de manera espontánea en cualquier lugar, hierbajos de mil tipos diferentes, muchas veces carentes de nombre y que son arrancadas en beneficio de las otras plantas o pasan inadvertidas. Por ello, las niñas y los niños de 1º, 2º y 3º de primaria del colegio estuvieron observándolas, dibujándolas, inventando sus nom-



Pinchos (Pinchus, B.)
La flor con pinchos (la flor pinchuro, J.)
La languiducha Olorosa (Larguiruchis Oloritum, v.)
Larga (Largiam, A.)
La planta que tiene bordes estrechos
Peluca Verde
Hojarota
Muojas (Moajis, A.)
Flormorada
La flor morada
Moraron
Morada (Moradis, A.)
La barra violeta
Rojaroja
Rosa
Amarillo
Amarillitis
Lila amarilla
Flory Amarilla
La flor multicolor
Batman (Batmatum)
Goku-conejo
La flor de la felicidad
La flor de la belleza (La flor de la bellezun, H.)
Misteriosa
Monita
Mariquita (Mariquitum, A.)
Minidragones
Semilla animal (Bolas semilla)
Patito feo

de hierbajos del patio:

bres, sus historias, e incluso construyeron en el patio, con la ayuda de las madres y los padres y de un colectivo de arquitectos, un invernadero para protegerlos. Con los nombres que pusieron los 60 niños hice una clasificación botánica.

VITO GIL-DELGADO

Una de las responsables del Departamento de Educación del CA2M.

31

La piña
Estrella (Estrellatum),
Sol (Solimus Calentinus, A.)
Estrella voladora circular (Estrellum voladoris circularum, V.)
Estrella verde de dientes afilados
Abahas
Sahia
Abraham
Flor
Yerbajo
La planta la chula
La planta la tonta
La flor la vonita
Cabeza punky
Ramo (Ramitus, S.)
Laura
Gema
Sara
Victoria
Consuelo Flores
Raquel
Hang
Carlos
Cristiana
La planta de Rocío
Plantinta
Parpol
Colegio Núñez Arenas
Ojitos
San Valentín

(a) Que pinchan:
Pinchos (Pinchus, B.)
La flor con pinchos (la flor pinchuro, J.)

(b) Que son finas:
La languiducha Olorosa (Larguiruchis Oloritum, v.)
Larga (Largiam, A.)
La planta que tiene bordes estrechos

(c) Que tienen peluca:
Peluca Verde

(d) Que tienen hojas:
Hojarota
Muojas (Moajis, A.)


(e) Que son magenta:
Flormorada
La flor morada
Moraron
Morada (Moradis, A.)
La barra violeta
Rojaraja
Rosa

(f) Que son amarillas:
Amarillo
Amarillitis
Lila amarilla
Flory Amarilla

(g) Que riman:
La flor multicolor

(h) Que son superhéroes:
Batman (Batmatum)
Goku-conejo

Clasificación



(i) Que tienen cualidades extraordinarias:
La flor de la felicidad
La flor de la belleza (La flor de la bellezun, H.)
Misteriosa

(j) Que son animales:
Monita
Mariquita (Mariquitum, A)
Minidragones
Semilla animal (Bolas semilla)
Patito feo

(k) Que son frutas:
La piña

(l) Que son astros del espacio:
Estrella (Estrellatum),
Sol (Solimus Calentinus, A.)
Estrella voladora circular (Estrellum voladoris circularum, V.)
Estrella verde de dientes afilados

(m) Que tienen hache intercalada:
Abahas
Sahia
Abraham

(n) Que son lo que son:
Flor
Yerbajo

(o) Que tienen personalidad (las chulas):
La planta la chula
La planta la tonta
La flor la vonita

Cabeza punky

(p) Que se ramifican:
Ramo (Ramitus, S.)

(q) Que son personas:
Laira
Gema
Sara
Victoria
Consuelo Flores
Raquel
Hang
Carlos

(r) Que son futboleras:
Cristiana

(s) Que son de Rocío:
La planta de Rocío

(t) Que son inclasificables:
Plantinta
Parpol
Colegio Núñez Arenas
Ojitos
San Valentín

Práctica realizada por los alumnos de 1º, 2º y 3º de primaria del Colegio Público Manuel Núñez Arenas de Vallecas en el curso 2016-2017 durante la residencia artística del colectivo Campo Adentro.

MIKEL OLAIZOLARI ELKARRIZKETA

Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako zuzendari pedagogikoa
ELKARTOKI 3



Prozesuaren ondorioak irakaslearen ikuspuntutik



Nola ezagutu zenuten Elkartoki?

Sare sozialen bidez ezagutu nuen. Aurrez ez nuen ezer entzunda eta sorpresa polit bat izan zen.

Nola/zergatik erabaki zenuten proiektuan parte hartzea?

Azken momentuko gauza bat izan zen, pare bat hilabete lehenago ezagutu nuen proiektua, baina

LH eta DBH-ko jolastokietarako zenez deialdia, alferrik bidaltzea izango zelakoan nengoen. Horrela azken egunean ezer galtzekorik ez genuela eta bidaltzea erabaki nuen.

Momentu hartan bultzada bat eta aholkularitza behar genuen, nahiko galduta geunden eta horretan ibilia zen norbaiten laguntza ondo etorriko litzaiagukelako. Proiektuari sendotasuna eta dimentsio handiagoa emango ziolakoan ere.

Zeintzuk dira aurreko patioaren erabileran ikusitako gabeziak edo dinamika negatiboak? Zein zen zuen kezka nagusia patioari begira?

Zementozko jolastoki gogor eta hotz bat genuen, jokoak edo jolasak oso bideratuak zeuden, adin ezberdinetako umeak ez ziren gehiegi nahasten, bakoitzak bere tokia izendatuta izango balu bezala. Naturatik oso urrun zegoen jolastokia, berdegune gutxi, haurren interes eta nahietatik urrun, betiko jolasetara (futbola, saskibaloia, pilota, txirrista...) bideratua. Haur kopuru handi bat, gehiengoa, jolas hauetan ez zela ibiltzen konturatu ginen. Zegoen belardi txikian, lokatzetan ibiltzen ziren, zuhaitzetako fruituekin jolasean... Guztien interes eta beharrak asetzeko ekin genion proiektuari.

“Guk esaten genien zertara jolastu behar zuten, zer egin, nola...”

Guk esaten genien zertara jolastu behar zuten, zer egin, nola... Dena oso bideratua ematen genien eta ez genuen gustoko. Espazioaren antolaketak, dinamika batzuk sortzen ditu. Guk espazio edo gune desberdinak nahi genituen eta ume bakoitzak erabakitzea non ibili, zertan, norekin ...

Zeintzuk dira zuen itxaropenak etorkizuneko patioari begira?

Alde batetik natura ekarri dugu: berdeguneak, zuhaitzak, baratza... Gure ikasleek natura zaintzea, ematen diren aldaketez jabetzea, prozesu ezberdinak ikusi eta bizitzea nahi dugu. Bestalde adin ezberdinetako umeak, inolako hierarkiarik eta genero ikuspegirik gabe elkarrekin jolasean ikusi nahi ditugu, bakoitzak nahi duenarekin eta nahi duen espazioan autonomiaz eta arduraz ibiliko dena.

Eskolaren antolaketari dagokionez, zeintzuk izan dira izan dituzuen erronka nagusiak? Zelan gainditu dituzue?

Hasiera batean, jolastokia eraldatzea beharrezkoa zela ulertaraztea eta jabetzea izan zen erronka. Ondoren lanketa egiteko orduak, momentuak bilatzea. Ikastetxe batean hamaika gauza egiten dira eta zaila da zerbait berria martxan jartzea egun batetik bestera. Orduategiek gainera ez dute laguntzen, batek libre duenean, besteak ez baitu libre izaten.

Arazoak etorri bezala gainditzen joan izan gara, zuzendaritzak bere egin zuen proiektua eta horrek asko erraztu du prozesua. Proze-

sua zehar urduritasunak, nekea, haserreak ez dira falta izan, baina barreak, ilusioa, elkarlana, poza eta egindakoaz harro egotea nagusi dira zalantzarik gabe. Prozesuaren amaieran bazkari bat egitekotan gara, pentsa!

Proiektua, printzipioz, pentsatuta dago ikasleen parte hartzea sustatzeko baina, zuen kasuan, ikasleak oso gazteak (haur hezkuntzakoak) ziren eta gurasoek osatu zuten talde motorea. Zeintzuk izan dira horren abantaila eta desabantailak?

Haur hezkuntzako jolastokia izanik, ez zegoen beste aukerarik. Ikasleak erdigunean kokatzen, beraiek protagonista izaten eta parte hartzen saiatu gara. Seguraski alderdi honetan gehiago sakontzerik izango genuen, beraiei protagonismo gehiago emanaz, baina denbora, segurtasun, eraginkortasun kontuengatik ez dira protagonista nagusiak izan. Etengabe beraien behar eta interesak kontuan izaten saiatu gara, baina behin baino gehiagotan zalantza ere izan dugu. Zenbateraino ari ote gara beraien nahi, interes eta beharrei erantzuten? Hori egunerokotasunak erakutsiko digu, asmatu dugulakoan gaude, baina ez bada horrela, lanean jarraitu beharko dugu. Prozesua hobeto egin zitekeela ez dut zalantzarik, baina nola? Hori da kontua.

Nola zehaztu dira patioaren diseinuaren elementuak? Zeintzuk izan dira baldintzak gauza batzuk beste batzuen gainetik aukeratzeko?

Prozesua oso konplikatu izan da, guraso talde ezberdinek gune bakoitzerako ideia sorta edo proposamen batzuk egin zituzten, baina gero arkitektoarekin elkartutakoan hauetako hainbat elementu ez zituzten arauak betetzen, ez ziren egokiak ... Lan talde bakoitzak proposatutakoari ere osotasun bat eman behar zitzaion eta horrek hainbat elementu ez jartzea ekarri zuen. Era berean paperean ideia guztiak oso ondo geratzen dira, baina ondoren eraiki egin behar dira eta horretarako ezagutza eta trebetasun handia behar da, elementu asko horregatik ez dira aurrera eraman. Beraz, egingarria izatea, ekonomikoki onargarria izatea eta legearen barruan egotea izan dira baldintzak.

Jolastokia ikastolako beste espazio bat bezala ulertzen dugu, ez orain arte bezala jolas denborako tarte horretarako soilik, baizik eta ikas-kuntzarako leku, deskubrimendurako, esperimentaziorako... Espazio bat dela deritzogu.

Patio berriaren diseinua era parte-hartzailean egin izatearen aspektu positiboak zeintzuk direla uste duzu?

Eraldaketa modu parte-hartzailean egitea oso positiboa izan dela azpimarratu nahiko nuke. Momentu askotan prozesua asko zaildu

“ Jolastokia ikastolako beste espazio bat bezala ulertzen dugu.”


du, baina bide honetan eraikitako zubiek, prozesuan zehar ikasitakoek eta egindako harreman sareek guzti hori gainditzen dute.

Hasieran guztiari forma ematea, lan taldeak banatzea, lan taldeak koordinatzea, arkitektoarekin eta udalarekin adostasunetara iristea, erabakiak hartzen joatea, auzolan egunak prestatu eta beharrezko materialak eta erremintak erabiltzen dakien jendea bertaratzea ez zen batere errazak izan. Baina behin guzti hau eginda, eta lan talde iraunkor bat, ilusioz eta giro onean elkartzen hasitakoan, primeran.

Proiektu honen helburuetako bat komunitatea sortzea zen, gurasoak ikastolara gerturatu eta harreman sareak sortzea. Guraso askok erakutsi duten konpromisoa, grina eta lanerako gogoia ikaragarriak izan dira. Egun osoan lantegian lana egin, bokata bat jan eta laneko arropenik auzolanean gaueko hamarrak arte egon denik ere bada! Inork ezer esan gabe hamaketako bikaina prestatu duenik ere!

Modu parte-hartzailean egitean, prozesua ez dela inoiz bukatzen konturatzen zara, etengabe proposamen berriak daude, aurrez pentsatu gabeko hamaika gauza egin ditugu. Oso aberatsa da, parte hartzaile guztiak egin dute bere prozesua eta burua horretan izan dute, horrela sormenak ez du amaierarik.

Aurrera begira ere, bide honetan gehiago sakontzea ona izango litzateke.



Ametsetako patioa zein den irudikatu.

a
s
M
a
t
U

37

e
r
a
l
d
a
t
U

55

Imaginar el patio deseado.

Imaginar el patio

VIRGINIA NAVARRO MARTÍNEZ
Arquitecta y Coordinadora de Ludantia

EL PATIO ESCOLAR: UN ESPACIO POLIÉDRICO

El patio escolar es un escenario complejo que combina su vocación de espacio público con los contenidos y rutinas de un edificio escolar. A pesar de la falta de diseño de la mayor parte de los casos, en este entorno se abordan los aspectos sociales, lúdicos y de descanso del alumnado. Los beneficios potenciales de los programas educativos que incluyen el espacio exterior son considerables: mejora de la atención, sensación de bienestar, incremento de la autoestima y desarrollo de habilidades de comunicación tanto grupal como individual.¹ Imaginar el patio implica por tanto imaginar el mejor escenario posible a nivel social, lúdico y pedagógico, siendo más acertadas aquellas propuestas que incorporan simultáneamente estos tres aspectos.

Este escenario debe insertarse además en un entorno ambiental cualificado que trabaje con experiencias propias del exterior de forma enriquecedora

¹ MICHANDANI, N. y WRIGHT, S. Future Schools. Innovative Design for Existing and New Buildings. RIBAPUBLISHING. Newcastle, 2015.

(cambio de las estaciones, climatología, juegos que requieren amplitud de espacios, vegetación, luz y sombra...). El aspecto “ambiental” de los patios es quizás la necesidad más acuciante actualmente y, al mismo tiempo, la más difícil de modificar. Si bien las guías de diseño suelen incluir indicaciones sobre la cantidad de superficie destinada a cada actividad, no establecen ningún criterio de calidad. A falta de encontrar ese equilibrio entre lo funcional y lo perceptivo, surgen con fuerza aproximaciones alternativas que proponen utilizar parámetros cualitativos del espacio público o del paisaje en estos espacios. Esto alcanza un significado pleno si consideramos la capacidad de generar comunidad que tienen los centros escolares y, en consecuencia, el potencial del vacío urbano de sus exteriores. Imaginar el patio es por tanto soñar también un espacio adecuado y útil para el barrio, un lugar de reunión más allá del horario escolar.²

Conviene señalar que actualmente los patios escolares han adquirido una importancia socializadora sin precedentes, ya que por primera vez en la historia de la infancia ha desaparecido el juego libre al exterior no supervisado y se ha disminuido el contacto de l*s niñ*s con la naturaleza. En ocasiones este espacio abierto es el único en el que niñas y niños juegan a lo largo del día en el exterior y en el

² A nivel local destacamos el programa Patios abiertos al barrio del Ayuntamiento de Barcelona (<http://ajuntament.barcelona.cat/educacio/es/patis-escolars-oberts-al-barri>) y a nivel internacional, en Suiza los patios se abren a la comunidad fuera del horario escolar convirtiéndose en un valioso recurso social y medioambiental, como el Kantonsschule Enge und Freudenberg en Zurich.

que se relacionan con sus amigos. A este importante papel social se superpone una revisión pedagógica sobre las metodologías de enseñanza que reivindica la importancia del aprendizaje adquirido en estos espacios alternativos y que, cada vez en mayor medida, propone su uso para fines curriculares.

PARÁMETROS DE CALIDAD AMBIENTAL

Una perspectiva enriquecedora, dado el papel social y de vacío urbano de los patios escolares, es considerar algunos parámetros de calidad ambiental a la hora de imaginarlo. Los que se describen a continuación son una clasificación posible.³

1 Accesibilidad-movilidad.

Se trata de analizar, en primer lugar, la relación de movilidad del patio escolar con el resto del barrio: ¿Es fácilmente accesible para l*s alumn*s en transporte público y peatonalmente (entendiendo incluidos en éste último los desplazamientos en bicicleta, patinete, patines, etc.)? ¿Tiene un espacio de encuentro para los padres y madres en las horas de entrada y salida de las clases? ¿Es inclusivo para cualquier tipo de diversidad (psíquica o física)? ¿Su acceso desde la calle es complicado? En este apartado se incluirían además las relaciones interior/exterior del propio edificio escolar: ¿son los espacios exteriores fácilmente accesibles desde lugares fundamentales de relación social como son el comedor, la sala de arte, de música, el salón de

3 Parámetros extraídos del diagrama *What Makes a great Place?* perteneciente a la red Project for Public Spaces (<https://www.pps.org/>) y del libro *Future Schools. Innovative Design for Existing and New Buildings* referenciado anteriormente.

actos o el aula de tecnología? ¿Las distintas áreas exteriores están conectadas entre sí?

2 Imagen-confort.

Se basa en parámetros perceptivos como la seguridad, la limpieza, la abundancia de vegetación, la posibilidad de caminar/correr por toda su extensión y de encontrar lugares confortables donde sentarse, la incorporación de zonas tranquilas y espacios de sombra, la percepción del espacio como un entorno visualmente atractivo, la presencia del agua, el estímulo de los sentidos a través de olores- colores- texturas- sonidos, etc.

3 Usos-actividades.

Un espacio exterior adecuado debe permitir actividades variadas (para cualquier género o diversidad), incluir propuestas divertidas, resultar útil a sus objetivos (pedagógicos, sociales y lúdicos), desarrollarse de forma sostenible y participativa y variar a lo largo del tiempo. Algunas preguntas interesantes que deben abordarse: ¿permite el diseño del espacio exterior la posibilidad de distintos tipos de enseñanza y aprendizaje?, ¿proporciona oportunidades para distintas actividades como el aprendizaje individual y colectivo, el trabajo en grupo, la exposición de trabajos e ideas o las actuaciones artísticas?

4 Sociabilidad.

Este parámetro sirve para evaluar la capacidad del lugar para relacionarse con el entorno próximo y promover la cooperación entre usuarios, para incorporar la diversidad y favorecer la interacción social, así como su potencialidad como espacio de recepción y acogida. ¿Ofrece el exterior variedad suficiente de lugares de relación, des-

de espacios silenciosos y relajantes hasta lugares ruidosos y de desfogue? ¿Permiten ambas opciones sentarse formal e informalmente? ¿Previene el diseño que los juegos de pelota predominen sobre otros usos?

Trabajar con estos parámetros permite establecer una base para evaluar la calidad de las propuestas: cuanto mayor número de ellos se satisfagan, mejor será el diseño de ese espacio.

EL PATIO COMO SUEÑO COLECTIVO

Imaginar el patio es crear una construcción colectiva a partir de los anhelos y deseos de cada uno de los miembros de la comunidad educativa. Organizar este sueño requiere de sistemas de ideación colectiva (design thinking, co-creación, procesos participativos) con dinámicas adaptadas a cada uno de los usuarios. Esto implica por tanto establecer estrategias diferentes para idear con niñ*s y con adultos y, dentro de los primeros, utilizar metodologías adaptadas a su edad. Estudios recientes muestran además los beneficios pedagógicos que conllevan que l*s niñ*s modifiquen sus propios espacios, lo cual convierte esta actividad práctica en algo valioso a nivel curricular.⁴ Como propuesta de trabajo, sería interesante que cada usuario imaginara el patio en función de su conocimiento potencial: l*s profesor*s el

4 Dos artículos de interés sobre este tema “The schools we’d like: Young people’s participation in architecture”, en DUDEK, M., *Children’s Spaces*, Architectural Press, Oxford 2005 y “Participating in the Design and Construction Process” en CARE, L., EVANS, H., HOLDER, A., KEMP, C., *Building Schools: Key issues for contemporary design*. Prue chiles (ed.) Birkhäuser, Basel, 2015.

patio pedagógico que querrían tener, l*s alumn*s un patio de juegos y de relación y los padres y madres, junto a la administración, el patio intergeneracional y su vinculación activa al barrio fuera del horario escolar. Esta lectura por capas compondría una realidad compleja donde todos los factores quedarían reflejados y en la que el diseño sería el encargado de aglutinar, recoger y posibilitar cada una de ellas. Después habría además que contrastarlo con los parámetros cualitativos descritos para asegurar un grado de confort adecuado para todos sus usuarios.

No obstante, cualquier propuesta imaginada debe confrontarse con la realidad: contamos con un entorno físico concreto, recursos materiales y humanos limitados y una superficie determinada (en ocasiones insuficiente). Si imaginar el patio es un ejercicio libre y expansivo, construir el patio pasa por establecer los límites del sueño y convertir el deseo individual en un reto colectivo. Según define Lluís Sabadell en su proceso de co-creación, definir el reto es una de los puntos más importantes del proceso. Frente a la libertad del apartado “imaginar”, el reto precisa definir con claridad cuál es el objetivo final de nuestro proyecto y considerar en su enunciado los límites materiales, económicos y espaciales que nos condicionan, descartando de partida aquellos aspectos imposibles de modificar.⁵

